

Hazteria edo Sarna Lan-ingurunean



Zer da?

Hazteria edo sarna parasitoek eragindako larruazal-gaixotasun bat da. Akaro mota batek (*Sarcoptes scabiei*) eragiten du, eta **azkura** (gauzez biziagoa, beroagatik) eta **larruazaleko lesioak** ditu sintoma nagusi.

Oro har, ez du konplikaziorik eragiten, baina desatsegina izan daiteke; nolana ere, tratamendu egokia jarraituz gero, sendatu egiten da.

Nola transmititzen da?

Gaixotasuna, nagusiki, **pertsonatik pertsonara** transmititzen da, eta **infektatutako pertsonaren larruazalarekin kontaktu luzea** izan behar da. Sexu-harremanen bidez ere har daiteke. Ehun bidezko transmisioa ez da oso gertagarria, baina gerta daiteke, akaroak 72 ordu arte irauten baitu ostalaritik kanpo. Arraroa izaten da animaliak gizakiari transmititzea, eta alderantziz.

Beraz, gaixotasuna transmititzeko, **beharrezkoa da kontaktu intimoa edo elkarbizitza egotea**. Immunodeprimituek eta/edo adinekoek dute kutsatzeko arriskurik handiena, eta transmisioa azkarra eta ohikoa izaten da larruazalarekin kontaktu estua egoten den jardueretan, esaterako, ospitaleetan, egoitzetan, ikastetxeetan, etab.

Aurretiaz akaroaren esposizioa izan ez duten pertsonen kasuan, **gaixotasunaren inkubazio-aldia 2 eta 6 aste artekoa** izaten da, eta 1 eta 4 egun artekoa pertsona aurretiaz izurrituta egon bada.

Jarduteko eta kutsatzeak prebenitzeko neurriak

Kutsatuta zaudela susmatuz gero, hauek dira **prebentzio- eta jarduketa-neurri orokorrak**:

- **Gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak** dituzten pertsonak edo **diagnostikatutako pertsona batekin zuzeneko harremana** izan dutenek (larruazalekoa, arroparen bidezkoa edo sexu bidezkoa) osasun-zerbitzu publikoko medikuarengana jo behar dute.
- **Kasuen kontaktuak aztertu behar dira, sarna-lesioak bilatzeko**. Lesioak daudenean nahiz ez daudenean, gaixotasuna duten pertsonekin harreman estuan egondako pertsonak (bizikideak eta sexu-bikoteak) aldi berean tratatu behar dira (aplikazio bat). Tratamendua egin eta 4 astera arteko jarraipena egin behar da (akaroaren ziklo osoaren denbora).
- **Ez da izan behar sarna diagnostikatu berri dieten pertsonen larruazalarekin kontakturik** (tratamendua jaso denetik 8 orduz, gutxienez), eta ez da erabili behar haren arroparik, oheko arroparik edo eskuoialik.
- **Gaixotasuna duten langileek ez dute lanera joan behar** (ikastetxea, ospitalea, egoitza, etab.). Tratamendua lehen aldiz aplikatu eta 8-12 ordura, haurrak ikastetxetara itzul daitezke, eta helduak lanera. Gauzez aplikatzen bada, hurrengo egunean.



INFORMAZIO-FITXA



- Esposizio handieneko jardueretako lantokietan, **laneko gainazalek iragazgaitzak, lauak eta garbitzeko errazak** izan beharko lukete.
- Lantokien, instalazioen eta ekipamenduen **aldizkako garbiketa zorroztko da** (ahal dela, ezkatak kentzeko xurgatze-metodoekin garbituko da).
- **Arropa eta oheko arropa, kontaktuan egon bada edo azken 3 egunetan erabili bada, 60º baino gehiagora garbituko dira.** Garbitu ezin diren arropa eta gainerako ehunak plastikozko poltsa hermetikoetan gorde behar dira, gutxienez 4 egunez.
- **Higiene-neurriak zorroztko dira;** esaterako, eskuak maiz garbituko dira ura eta xaboia erabiliz, gaixoezin edo kutsatutako materialekin kontaktuan egon ondoren, eskularruak kendu ondoren, otorduak egin aurretik eta egunaren amaieran.
- **Laneko arropa eta oinetakoak eta norbera babesteko ekipamenduak** (eskularruak) erabiliko dira.
- **Animalien albaitaritza-kontrola egingo da,** baita gaixotasun-bektoreen kontrola ere (arratoiak eta intsektuak hiltzea).

Nola jokatu lantokian agerraldi bat dagoenean

Hazteria ez da nahitaez aitortu beharreko gaixotasun bat, baina, agerraldiren bat egonez gero, Zaintza Epidemiologikoko Unitateari jakinarazi behar zaio.


Agerraldi baten kontrola azkar detektatu, adierazi eta ikertzearen mende egongo da.

Agerraldi bat da: mediku batek zentro bereko bi pertsonari edo gehiagori sarna (probablea edo egiaztatua) diagnostikatu badie bi hilabeteko epean.

Jarduketak egin behar dira bizikidetza eta kontaktua ohikoak diren lan-ingurune berezietan, esaterako, egoitzetan, ospitaleetan, osasun-zentroetan, ikastetxeetan eta abar.

Beraz, halako erakundeetan agerraldi bat egonez gero, besteak beste, hau egin behar da:

- **Agerraldi bat dagoela jakinaraztea** dagokion erkidegoko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari.
- Agerraldi bat dagoenean, **gainerako pertsonak kutsatzeko duten arriskua baloratzea;** horretarako, autonomia-erkidego bakoitzeko zaintzako edo jarduera epidemiologikoko protokoloan ezarritako irizpideei jarraituko zaie. Hala, agerraldiaren banakako ebaluazioa egin ondoren, dagozkion neurriak hartuko dira tratamenduari, isolamenduari, gainazalen eta ehunen garbiketari, higienerari eta norbera babesteko ekipamenduen erabilerari dagokienez.



Bibliografia

"Protocolo de Vigilancia epidemiológica de Escabiosis". Osalan (2022ko apirila).

"Protocolo de actuación frente a la Sarna". Madrilgo Erkidegoa (2021eko azaroa).

"Ficha de agentes biológicos-Base BiO: Sarcoptes scabiei". Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionala.